

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresan zenbait motatako kostuak topa ditzakegu, garrantzitsuenak lau izanez. Alde batetik, **kostu finkoak** aurki ditzakegu. Hauek hilero edo urtebetero ordaindu behar ditugun kostuak dira. Hasteko, lonja alokairua ordaindu izan beharko dugu, hilabetero 400€ izango dena. Gainera, garraio gastuak izango ditugu, gure “Citroen-Jumpy 1.9D confort” furgonetakoak, zehazki. Furgoneta honek 2.900€ balio du, gainera 120 € gasolina gastatuko dugu. Hortaz aparte, gure langileen soldatak ordaindu izan beharko ditugu. Hasieran, bakarrik ingeniaria izango dugu, baina, dirua lortu ahala, langile gehiago kontratatuko ditugu. Langile bakoitzaren soldata 1.100€ izango da, gurea bezala, hortaz, 6.600€-ko kostua izango dugu hasieran. Dena den, eskala ekonomia lortzen dugunean, kostu finkoak baxuagoak izango dira, nahiz eta ekoizpena handitu. Gainera, ura eta energiaren kostuak ere izango ditugu. Uraren kostua 1'94€/m³-koa da Euskal Herrian (<https://tarifasdeagua.es/info/precio>) eta elektrizitatearena 0'39€/kWh-koa, borobilduz (<https://tarifaluzhora.es/>).

Bestalde, **kostu aldakorrak** aipa ditzakegu. Hauek ekoizpenaren arabera aldatzen dira, eta, ondorioz hasieran ez dira hainbeste izango. Hala ere, ekoizpena handitu ahala, kostu hauek handituko dira. Hasteko, baliabideen kostuak izan behar ditugu kontuan, gure hornitzaileak ordaindu behar ditugulako.

Beste aldetik, **kostu zuzenak** dauzkagu, SMZ dena, bereziki. Hau zerga zuzena bat da, Sozietate Mozkinen Zerga, zehazki. Etekinen portzentai bat da eta estatu mailako zerga da.

Bestalde, **zeharkako kostuak** ordaindu izan beharko ditugu, hau BEZa izanez. Zerga hau, Balio Erantsiaren gaineko Zerga da, eta, eragiketa ekonomiko gehienetan ordaintzen da.

Gainera, lehen aipatu dugun bezala, **eskala ekonomia** (Eskalako ekonomia enpresa batek hedatzean produkzio-gastuak murrizten dituen egoera da. Egoera horretan, zenbat eta gehiago ekoitzi, orduan eta kostu txikiagoa du enpresak produktu bat fabrikatzeagatik.) lortu nahi dugu. Hau da, gure ekoizpena handitzea. Bezero gehiago lortzen ditugunean, lortutako dirua ekoizpen handiago batean inbertituko dugu. Nahiz eta gehiago ekoiztu eta hasieran kostu aldakorrak handiagoak izan, guztia ondo joaten bada eta produkzioa etengabe handitu ahal badugu, eskala-ekonomiara ailegatuko ginateke. Hau gertatzekotan, gero eta gehiago ekoiztuz, gero eta baxuagoak izango dira kostuak.

Hedapen-ekonomia ere erabiliko dugu, hau da, baliabide berdinak erabiltzea produktu bat baino gehiago ekoizteko eta ondorioz, hau errentagarria ateratzeko.

Hurrengo taulan **lehenengo hilabeteko gastuak** agertzen dira. Handik aurrera gastu finko batzuk minimizatuko dira aldi bakar batean ordaindu behar direlako (**berdez azpimarratuta**):

<p>KOSTU FINKOAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Alokairua (400€) - Autonomoen kuota (294€) - Lonjaren aseguruia (198€) - Altzariak (2.000€) - Informazio prozesatzeko ekipamendua (600€) - Materialak: <ul style="list-style-type: none"> - Kutxak eta paketatuzeko bestelako materialak (60€) - Furgoneta (2.900€) - Gasolina (120€) - Soldatak (6.600€) - Ura (35€) - Energia (81,0528€) - Ekipamendua (1.618€) - Gizarte segurantza (1.980€) soldata baten %30. - Sozietate mugatua eratzea (3.005,06€)
<p>KOSTU ALDAKORRAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ekoizpena (unitate baikoitza): <ul style="list-style-type: none"> - Bozgorailu (2,55€) - Txip (44€) - Pantaila (26€) - Karkasa (80€) - Software (1.000€) <p>*x50 egingo dugu, lehenengo ekoizpena 50 unitatekoa izango baita =8.627,5€</p>
<p>GUZTIRA</p>	<p>28.518,6128€-ko gastua lehenengo hilabetean, handik aurrera 19.013,5528€-koa hilabetero (ekoizpenaren hazkundea kontuan hartu barik).</p>